

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. EZ IRAUNKORTASUN FAKTOREARI, ELAK ALTERNATIBA DAUKA
2. 223.832 PERTSONA LANGABEZIAN, 100.872 PERTSONA INOLAKO PRESTAZIORIK GABE
3. IBEXeko ENPRESEK IRABAZIAK BIKOIZTEN DITUZTE KRISIALDI GARAIAN
4. LAN KOSTUAK GEHIAGO MURRIZTU ARREN, ESPAINIAR ESTATUKO BPGd-a GEHIAGO TXIKITU DA
5. AHT-AREN KOSTUA ORAINGOZ 437 MILIOI EUROTAN HANDITU DA
6. PROPOSAMENA: AZPIKONTRATATURIKO ZERBITZUAK SEKTORE PUBLIKORA BUELTATU ETA BERTAKO LANGILEEN SUBROGAZIOA BERMATZEA

1. EZ IRAUNKORTASUN FAKTOREARI, ELAK ALTERNATIBA DAUKA

I.- SARRERA

Joan den astelehenean, irailak 2, Espainiako gobernuak CCOO, UGT, CEOE eta CEPYMERi pentsioen iraunkortasun faktorea moldatzeko proposamenaren berri eman zien. Halere, proposamen horren xehetasunak jasotzen dituen dokumenturik ez dago.

Rajoyren gobernuak iragarri du legegai irailean onartuko duela, eta Parlamentuan, non PPK gehiengo absolutua baitu, urtea amaitu baino lehenago pasako dela.

Gobernuaren azalpenetan ez zen erreformaren xehetasunik eman, eta horrek kritika edo analisis egitea eragozten du. Halere, aurreratu denaren ildo nagusia bat dator ekainean adituen batzordeak eman zituen gomendioekin. Bizi-itxaropena luzatu egingo delako aitzakiaz, pentsiodunak gehiago direla eta pentsioetako gastua handiegia dela abiapuntutzat hartuta, "iraunkortasun faktore" delakoa pentsioen doikuntza egiteko tresna iraunkor bihurtu nahi dute; pentsiodun berriei eragingo die, baina baita orain arte zeudenei ere, pentsioak eguneratzeko indize berri bat ezarriko baita, eta honek kolpe batez deuseztatzen du KPIaren erreferentzia. Diotenez, *"pentsio-sistema publiko, solidario eta engaiatua bermatzeko"*. Baina esaldi hutsal horrek ez dauka errealitatearekin zerikusirik.

ELAk iragarri zuen benetako helburua agerian geratu da, hots, pentsio berriak txikiagoak izatea eta pentsioak KPIaren arabera eguneratzeko betebeharrak legala kentzea.

a) Pentsio berriak txikiagoak izango dira

Iraunkortasun Faktorearen oinarria da esatea gero eta urte gehiagoz bizi izango garela, eta

horrenbestez, *"pentsioaren zenbatekoa moldatu egin behar da bera jasoko den denbora-eparean arabera"*. Hots, pentsio berriak urtetik urtera txikiagoak izan behar dira. Bizi-itxaropena gehitu ahala, are gehiago murriztu behar dira pentsioak.

Hain zuzen, Iraunkortasun Faktoreari dagokionez, hauek dira Gobernuaren asmoak:

- 2019tik aurrera aplikatzea. Urte horretan eragingo die pentsio berriei.
- Bere edukia bost urtero berrikustea.
- Adituen taldearen txostenean finkatutako murrizte portzentajeei buruz (pentsio berriak mailaka jaitea proposatzen zuen, 2050 urteko %20raino), gobernuak ez du zehaztu horietatik izango diren edo beste batzuk, baina badirudi filosofia bera aintzat hartuko dela.

b) Pentsioak eguneratzeko indizea

Gobernuak erabaki du pentsioak KPI adina gehitzeko betebeharrak legala kendu egingo duela. Ez du esan indize berria zein izango den, baina beste faktore batzuk aipatzen ditu (soldaten igoera, ekonomiaren bilakaera edota kotizazioen joera). Irizpide orokor eta lauso hauek dagoeneko aplikatzen ari dira, esaterako, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren erosteko ahalmena etengabe gutxitzeko. Gainera, adituen batzordeak beste indize bat mahairatu du, eta honek datozen urteetan pentsioak izoztea edo murriztea ekarriko luke.

Helburu teorikotzat *"pentsio bat jasotzen duten pertsonen konfiantza, lasaitasuna eta ziurtasuna"* emate aldera, hau da beren proposamena:

- Gehienezko muga KPI+%0,25 izatea, eta gutxienekoa, %0,25ekoa.
- Indize berri hau 2014tik aurrera aplikatuko da.

Antza, datozen urteetan pentsio guztiek galduko

dute erosteko ahalmena, igoera %0,25ekoa izango baita.

II.- ONDORIOAK

ELAk ez du onartzen Rajoyren gobernuak pentsioak areago murrizteko hartu duen erabakia:

- I. Ezin da ontzat eman iraila amaitu baino lehenago legegai bat aurkeztuko dela, eta artean gobernuaren proposamen zehatzik plazaratu ez izana. Gizartean eztabaida saihestu nahi dute horrela.
- II. 2014tik aurrera pentsiodun guztiak erosteko ahalmena galtzea da helburua. Gaur diru-sarrera eskasekin bizirauten ari den herritar asko eta asko areago pobretzeko estrategia da hau. Joan den uztailean kotizaziopeko pentsioen batezbesteko zenbatekoa 975 euro zen Nafarroan, eta 1.058 euro EAEn. Pertsona hauek erosteko ahalmena etengabe galtzera zigortu nahi dituzte, datozen urteetan pentsioak %0,25 baino ez baitira igoko. Honela pentsiodunentzako beharko luketen diru kopuru handiak ez zaizkie iritsiko (%1eko igoera 1.000tik gora milioi dira urtean).
- III. 2019tik aurrera pentsio berriak murriztu egingo dira, eta murrizketa %20ekoa ere izan liteke, adituen batzordeak esan zuen moduan.
- IV. Politika honekin pentsiodunen diru-sarrerak urriagoak izatea nahi dute, eta finantza-erakundeek pentsio pribatueta duten negozioa bultzatu.

ELAk pentsio-erreformen aurkako mobilizazioak egin izan ditu; aldarrikapen hauek, esaterako, 2011ko eta joan den maiatzaren 30eko greba orokorretan plazaratu ditu. Gizartearen mobilizazioa da politikak aldarazteko bidea, eta horri jarraituko diogu. Halaber, salatu egin behar

dugu CCOOek eta UGTk gobernuari gai honetan ematen dioten babesa. Murrizketa latz hauek guztiak legitimatzen baitituzte adituen batzordean parte hartuta edo, orain egin duten bezala, erreforma proiektua hil honetan gauzatu nahi duen gobernuarekiko sasi-negoiazioan egonda.

III.- PROPOSAMENAK

Horrenbestez, ELAk hau eskatzen du:

- Ez dadila pentsioen beste murrizketarik egin, eta azken urteetan ezarri diren erabakietan atzera egin dadila, pentsio berrien zenbatekoa murriztu eta pentsiodunen erosteko ahalmena moztu baitute.
- Pentsioei buruzko legedia Euskal Herrian erabaki dadila.
- Hego Euskal Herriko erakundeek berma diezaietela pentsiodunei eta etorkizunean pentsio bat jasoko dutenei diru-sarrerak ez zaizkiela murriztuko, erreforma gauzatuz gero. Horretarako pentsiodun guztiei osagarri bat bermatu behar zaie, hartutako erabakiek eragindako diru-sarrera galeraren adinekoa.

2. 223.832 PERTSONA LANGABEZIAN, 100.872 PERTSONA INOLAKO PRESTAZIORIK GABE

Hego Euskal Herriko egoera oso larria da. Langabezia eta prekarietatea inoizko gehiengorik altuenetan daude, eta bide horretatik erabateko pobreziara besterik ez da iristen.

Lanaren egoera tamalgarria da. Hala erakusten dute adierazle guztiak. Begi bistakoa den arren, agintari batek baino gehiagok egoera hobetzen ari dela esateko lotsarik ez du izan. Ez da hori datuek erakusten dutena.

Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) argitaraturiko azken datuek, 2013ko bigarren hiruhilekoak, azken urtean Hego Euskal Herrian (HEH) 50.600 lanpostu suntsitu direla erakusten dute, hauetatik 41.500 soldatapeko lanpostuak izan dira.

Enplegu Zerbitzu Publikoak argitaratu dituen azken datuetan berriz, azken abuztuari dagozkionak, HEHan langabezian dagoen jende kopuruaren hazkundera erakusten da, 15.355 langabetu gehiago azken urtean. Hau da, 223.832 langabetu daude denera HEHan.

Era honetan langabezia tasa % 17,3ra igo da, 28-EBko % 11ren oso gainetik hain zuzen. Gainera langabeziaren bilakaera askoz txarragoa da hemen Europan zehar baino. HEHan langabe kopurua % 7,4 igo den bitartean, 28-EBean % 3,8 igo da.

Gazteen langabezia tasa % 48koa da


Gazteen arteko langabeziaren igoera ere nabarmena da BAiren datuak ikusita. 16 eta 24 urte bitarteko langabezia tasa % 48koa da, azken urtean 4,3 puntu hazi ondoren.

Sektore eta baldintza prekarioenak dituzten lanpostuak dira neurri handiengan suntsitzen direnak. Azken urtean 20.700 aldi baterako lanpostu suntsitu dira. Eta behin-behinekotasun tasa 1,3 puntu jaitsi da, % 20,2ra. Baina ez behibetirako lanpostuak sortzen direlako, baizik eta aldi baterakoak ez direlako berritzen.

Lan baldintzak ere ikaragarri ari dira okertzen. Orain arte 2013an sinatu diren lan kontratuen % 93,8a aldi baterakoa izan da.

Baina prekarietatea ez da soilik lana dutenentzat. Lanik gabekoen egoera ere gero eta txarragoa da. Hain zuzen 2013ko uztailan HEHan 100.872 pertsona izan dira lanik gabe eta inolako langabezia prestaziorik eta subsidiarik jaso gabe.

Eta kotizaziopeko langabezia saria jaso dutenak (egiten diren kotizazioen arabera) langabetuen % 34,4a izan da, beste % 20,3ak langabezia subsidioa jaso duen bitartean, askoz ere kopuru baxuagoa duena.



Hau guztia egiten diren politiken emaitza besterik ez da, administrazioek hartzen dituzten erabakien emaitza. Begi bistakoa da langabezian daudenen egoerak, inolako diru sarrerarik ez dutenen egoerak eta gero eta lan baldintza okerragoak dituztenen egoerak ez diela axola agintean daudenei. Edo gutxienez hori aldatzeko ez dute ezer egiten.

Politika hauek aldatzeko era bakarra dago, politikak aldatzea kaletik eta enpresetatik behartzea da. Antolatuz eta borrokatuz.

3. IBEXeko ENPRESEK IRABAZIAK BIKOIZTEN DITUZTE KRISIALDI GARAIAN

Egungo krisi ekonomiko garaian administrazio ezberdinak burutzen ari diren murrizketa eta etengabeko erreformak ondorio larriak izaten ari dira lan eta sozial arloan: langabezi tasa %17,3ra heldu da, langabeen %45,3ak ez du inolako langabezi saririk jasotzen, soldata, pentsio eta prestazioen eros ahalmena jaisten ari da etengabe, beldurra eta txantajea nabarmenak dira lan munduan, egunero ari dira desjabetzeko

ematen, eta abar luze bat.

Baina batzuei ez doakie hain gaizki; izan ere, Ibex 35-eko enpresek 14.300 milioi eurotako irabaziak lortu dituzte urtearen lehen erdian, 2012ko lehen seihilekoan baino un %103,5 gehiago. Irabazi hauek oso kontzentraturik daude, 10.000 milioi 5 elkarterenak baitira. Hau da, Ibex-eko 35 enpresek lorturiko irabazien %70a 5 erakundetan kontzentratzen da (BBVA, Santander, Telefónica, Iberdrola eta Endesa, irabazien arabera ordenatuak). Irabazirik handienak, beraz, finantza erakunde bik daramatzate.

Krisialdiak, beti bezala, irabazle eta galtzaileak ditu. Finantza erakundeek eraman gaituzte egoera honetara, diru publikoa jaso dute beraien akatsak estaltzeko, eta izugarriko mozkinak izaten ari dira berriro ere, guztia, klase politikoaren oniritziarekin. Bien bitartean, biztanleriak murrizketa eta erreformak pairatzen jarraitzen du, hamarkadetako borrokari esker lorturiko lan eskubide eta eskubide sozialak gero eta urriagoak direla ikusten duten bitartean. ¿Norentzat gobernatzen dute?


4. LAN KOSTUAK GEHIAGO MURRIZTU ARREN, ESPAINIAR ESTATUKO BPGd-a GEHIAGO TXIKITU DA

Asko hitz egiten ari da lan kostuak murriztu eta horrela lehiakortasuna irabazteko beharizanari buruz. Baina egungo krisi ekonomikoaren aldia hasi zenetik, aleko lan kostua Euro gunean baino nabarmen gehiago jaitsi da Espainiar estatuan. Zehazki, lan kostua %5,3a jaitsi da Estatuan 2009 eta 2012 ekitaldien artean, Euro gunean %6,2a igo diren bitartean.

Ezarri nahi diguten argudioaren arabera, jokaera ezberdin honek, espainiar ekonomiaren lehiakortasuna hobetu beharko luke, eta beraz, baita hazkunde handiagoa ekarri. Baina datuek

alderantzikoa erakusten dute, Estatuko BPGd-a % 5,5a jaitsi den bitartean, Euro guneakoak ez baitu hain portaera txarra izan, %1,5a jaitsiz. Soldatak jaitsiz lehiakortasuna gehitu eta horrela ekonomia hobetzen dela, faltsua da beraz, eta jarraitu beharreko bidea alderantzikoa da: soldatak igo, hauen eros ahalmena gehitu eta ekonomia bultzatzeko.

ALEKO LAN KOSTUA, % ALDAKETA. 2008-2012. EURO GUNEA ETA ESPAINIAR E.



Iturria: Banco de España

Baina badago beti gehiago eskatzen duenik, eta norabidez inoiz aldatzen ez duenik; Europako Batzordeak eta Nazioarteko Moneta Funtsak %10erarteko soldata jaitsiera berriak eskatu dizkio Espainiar estatuari. Estatu mailako gobernu, patronal eta sindikatuak neurri honen aurka daudela dirudi. Arrazoa: sinaturik daukaten akordioa, zeinaren arabera, soldatak ez diren %0,6aren gaineratik igoko 2013 eta 2014 ekitaldietan (ekonomia %1a baino gehiago haziko balitz 2014an, %1 gehienez). Hala ba, CCOO eta UGTk sinaturiko 2012, 2013 eta 2014 Enplegu eta Negoziazio Kolektiborako II Akordioari esker, soldaten eros ahalmena, KPIaren eragina kenduta, berriro ere jaitsi egingo da hurrengo ekitaldi bietan. Agian eragina Europako Batzorde eta Nazioarteko Moneta Funtsak proposaturikoa baino zerbait txikiagoa izango da (ez askorik), baina beste behin ere, langileria, eta ekonomia

orokorrean kaltetzen dituzte.

5. AHT-AREN KOSTUA ORAINGOZ 437 MILIOI EUROTAN HANDITU DA

Inbertsio osoaren %42a eginda "Y"aren hasierako kostua 437 milioi eurotan hazi da. Nahiz eta aurrekontua 4.178 milioitakoa izan, jadanik 4.615 milioi gastatu dira, hau da ustezkoa baino %10 bat gehiago, Sustapen Ministerioaren datuen arabera.

Datararte, Adif-ek 1.139 milioi inbertitu ditu bere konpetentzia pean dauden obretan (Gasteiz eta Bilboko plataformak) eta Eusko Jaurlaritzak beste 790 Gipuzkoako zatian. Hau da, guztira 1.929 milioi, kostu osoaren %41,8a delarik.

Bat ez etortzearekin eman den azalpen bakarra "lan osagarrietan eman diren aldaketek horrela eskatu dutela" izan da. Madrilek isiltasuna gordetzen duen bitartean, Lakuak, proiektua bere lehentasunen artean duela medio, zati ezberdinetan egitear dauden lanen burutzea eskatzen du.

Hau guztia, AHTren inguruko zalantzak pil pilean daudenean. Euskal eta Espainiar gobernuak ez datoz bat, ez obra zibilean, ez trenbidearen ibilbidean, ez etorkizuneko geltokietan, ez lanen erritmoan ezta dagoeneko proiektatutako tartetan ere. Aurrekontuagatik, hau da murrizketek, ez dituzte sarean bakarrik ondorioak izango trenaren segurtasun sistema ere zalantzan dago, ERTMS sistema berria eta aurreratua edo orainarteko, ASFA?

Orainarte, "zenbait aldaketek" kostuan aipatutako eragina izan badute, puntu guzti hauek zenbat gastu gehiago suposatuko dute?

Gainera, Madrileko Auzitegi Nagusiak Sustrai Fundazioak Sustapen Ministerioaren aurka jarritako demandari arrazioa eman eta ingurumen-inpaktuaren deklarazioa iraungita

egotearen ondorioz nafar zatian egindako lanak legez kanpo daudela esan eta lanak geldiaraztea erabaki du. Sententzia oraindik ez da irmoa.

Guzti honek ELAren jarrera indartzen du, are gehiago egungo abagune ekonomikoa kontutan izanda ere. Eusko Jaurlaritzari eta Nafar Gobernuari AHTaren eraikuntza eta aurrekontuetan bideratzen diren partida guztiak bertan behera utzi eta beste gizarte beharrietara bideratu dezatela eskatu eta exijitzen diegu. Kalte ekonomikoa eta ekologikoa larriak dituen zentzugabeko proiektu honek, azken bost urteetan zazpi langileen bizia eraman du. AHTrik EZ!

6. PROPOSAMENA: AZPIKONTRATATURIKO ZERBITZUAK SEKTORE PUBLIKORA BUELTATU ETA BERTAKO LANGILEEN SUBROGAZIOA BERMATZEA

2003an bukatu zen enpresa eraikitzailearen A-8 Autobidearen esplotazioa. Garai hartan, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiak autobide horretan bidesaria ezartzen jarraitzea erabaki zuten. ELAk erabaki hori gaitzetsi zuen, ordainketarik gabeko bide librea izan zedin eskatuz (autobidea sobra ordaindua baitzegoen jada).

Momentu horretan Gipuzkoako Aldundiak Bidegi enpresa publikoa sortu zuen, A-8 autobidea kudeatzeko eta AP-1 autobidea eraiki eta kudeatzeko (Eibar eta Gasteiz arteko ordaindu beharreko bidea), hala nola lurralde horretako kapazitate handiko bideak kudeatzeko.

Urte horretan bertan foru entitateak kontratu bat sinatu zuen Bidelan enpresa pribatuarekin (lan horretarako zehazki sortu zen enpresarekin), AP-8 eta AP-1 autobideen mantentzea eta kontserbatzea azpikontratatzeko. Sinatutako kontratuak Bidegik Bidelani Gipuzkoako autobide hauek zeharkatzen zituzten kotxe kopuruaren arabera ordainduko ziola ezartzen zuen.

2009. urtean, eta bertatik igarotzen zen trafikoa “aurreikusitakoa” baino txikiagoa zela ikusita, Bidelanek kontratuaren aldaketa bat eskatu zuen. Bidegik aldaketa onartu zuen, eta kostu finkoak ordaintzeaz gain % 7,7ko irabaziak ordaintzea konprometitu zen enpresa pribatuari. Hau da, Gipuzkoako Aldundiak Bidelani irabazi handiak bermatzea konprometitu zen, enpresa pribatuaren gastuak haztean handitzen den irabazia. Hori dena diru publikoarekin ordainduz. Eta gainera Bidelani epea luzatuz 2018ra arte.

Gipuzkoako Aldundiak ateratako kontuen arabera, kontratuaren aldaketa honek 2009 eta 2012 epean Bidelani 15,5 milioi euro gehiago ordaindu behar izatea suposatu du (hau da, batzaz beste ia 4 milioi euro gehiago urteko).

Botere politikoarekin itxuraz ongi lotutako gutxi batzuk aberasteko instituzioak enpresa pribatuen zerbitzura jartzeko jokabide hau gizarteari iseka egitea da.

Gipuzkoako Aldundiak Bidelanekin duen akordioa hautsi eta atzera botatzea erabaki du, bere gain zuzenean autobideen mantentze eta kontserbazio lanak hartuz. Gainera Bidelaneko langileak subrogatzea konprometitu da, Bidegiren langile izatera pasako direnak.

Azpiktratatutako zerbitzuak sektore publikora bueltatzea eta langileak subrogatzea beharrezkoa den politika bat da. Gipuzkoako Aldundiak egindakoa, beraz, ekimen ona da, beste eremu batzuetara ere zabaldu beharko litzatekeena.

ELAk bide hau defendatzen du. Gainera Gipuzkoako Aldundia are urrunago joan beharko lukeela iritzi dio, eta Bidegin eman diren irregulartasunak direla eta, zorraren ordainketan luzamendu bat ezarri (900 milioi eurotako dela). Zorra horren giza ikuskaritza bat bultzatu, eta ez legitimoa dela ondorioztatzen den zorraren zatia ez ordaintzeko.